



ESKOLA TXIKIEN XXVI. FESTA: OLABERRIA 2013 OLABERRIA EZAGUTZEN

Dakizuen bezala 2013ko Eskola Txikien Festa dela eta aurten, Olaberriak, urtean zehar beste zenbait ekintza antolatzea erabaki du festaren berri eta ospatzearen arrazoia plazaratzeko asmoarekin.

Antolatu dugun hirugarren ekintza, "Olaberria Ezagutzen", **apirilaren 14an** ospatuko da eta oraingoan egun osoko festa izango da, Olaberriko herria bertako produktuen bidez ezagutzeko aukera izango dugularik. Egitaraua honako hau da:

- 11:00 Bertako produktuen azoka (txakoli, sagardoa, piparrak, esnekiak, haragia, barazkiak, pitxiak, arropa, gaztak, tailua...)
 - 11:00 Bigarren eskuko azoka
 - 12:00 Bertako produktuekin pintxoak salgai
 - 13:00 Patata tortila lehiaketaren sari banaketa
 - 14:00 Bazkaria
 - 15:30 Haurren jokuak
 - 16:30 Helduen jokuak
- Egunean zehar trikitixa izango da giroa alaitzeko.

Oharrak: Bazkarirako tikeak (oilasko errea, entsalada, patata tortila zatia eta ogia), 15€ menua, Udaletxean, Zezilionean eta Tabernan erosteko aukera izango da.

Kanpotik datozenentzako, alde zuzenetik izena eman beharko da tikeak gordetzeko, apirilaren 8tik 12ra bitartean, 648858813 mugikorrera deituz edo Komunikazioa2013@kuttunolaberria.org helbidera mezu bat bidaliz. Patata tortila txapelketan parte hartzeko ere kontaktu berdinak erabili ahal izango dira.

Patata tortilak egiteko osagaiak (arrautzak eta patatak) antolakuntzak banatuko ditu festaren egun berean (bestelako osagaiak parte hartzaileak jarri beharko dituzte, zartagia ere ekarri behar dute). Tortilak, epaitu eta gero, salgai jarriko dira entsalada eta oilaskoarekin batera. Edariak erosteko ere taberna izango da.

Bigarren eskuko azoka: azokan gauzaren bat salgai jarri nahi izanez gero deitu 648 85 88 13 mugikorrera.

Ekintza gustokoa izango duzelakoan eta bertaratuko zareten esperantzarekin agurtzen zaituztegu.

Olaberrian, 2013ko martxoaren 20an

